

8. Ariketa. Bardoze

A. Testua:

Auzoetan gaskoia eta euskara hitz egiten zutenak nahasturik zeuden. Inguruko herrietan badaude euskaldunak, nahiz eta gaskoia ere hitz egin.

—Zonbit hitz hola. Bana ez, ez... aitag ez du kaskoina ikasi, ez. Amak ba, amak konprenitzen zien, bana ez mintzatzen. Ez dut intzun ama mintzatzen.

—Eta aitatzik bai, erran duzu?

—Ba, aitatzik bai.

5 —Eta bazirela kartierrak hemen, batzuk eskualdunak, bertzek gaskoinak, edo denak nahasteka ziren?

—Nahasteka.

—Nahasteka?

10 —Nahasteka, ba. Bardoztarren artien esposatzen zelaik, bada etxe andana at, hek bazazkiten hiruak. Eta hemen, erteko, Būüntxia onduen, hor... senar, *enfin*, Léonie-k senarra *de Masparraute* zien. Hak eskuara ta frantsesa bazazkien, ta Léonie-k hiruak.

—Eta “Bardos”, batzuk erraten dute: “zera... bai, ama Eskual Herrikoa nuen, baina ni Bardozekoa nintzen”. Eta zer, “Bardos” ez da Eskual Herrian edo...?

15 —*Voilà*. Nik ez dut erten ahal... *voilà*. *Enfin*, ez da Eskual Herriaan erdian, hasteko. Arrunt beste... herrian. Ba, ta...

—Eta ondoko... ondoko herrietan, badakite eskuaraz?

20 —Ordien, Ahurtin poxiño... *enfin*, xapo... “poxiño bat” edo “xapoño bat”. Bardotzen “xapoño bat” erten da, bana nik intzun dut “poxiño bat” erten. Eta Bastidan baakite... ez beharbaa Bardotzen bezanbat, bana baakite. Eta Gixen eta Bidaxunen eta hor kaskoin gehio, zonbit eskualdun, eta geo Oraarren. Oraarrek ere hunkitzen du Bardotze, eta hor bada “Les Bartas” kartiera, Bardotzen eta hurbilena. Hor baazkite hiruak: eskuara re, ta kaskoina re, frantsesa...

—Eta zu gaskoina poxi... xapo... xapiño bat?

—Poxiño bat!

—Poxiño bat badakizu gaskoiz zuk?

25 —Bo, zonbeit hitz hola ari zelaik, bana gue adineko auzuek frantsesez, ez dut gehio...

Aipatzen diren toki-izenak batuan:

Bardoze (fr. *Bardos*), Martxueta (fr. *Masparraute*), Buruntz (etxe baten izena), Ahurti, Bastida, Gixune, Bidaxune, Oragarre, Bartak (gask. *Les Bartas*).

B. Galderak

1. Aurkitu itzazu testuan euskara nafar-lapurtarraren bi ezaugarri eta aipa itzazu testuko adibideak (2 puntu):

a.

.....

b.

.....

2. Lehenengo galderan adierazitakoez gain, identifika itzazu testuan dauden lau hitz edo ezaugarri, ez mendebaldeko euskaran ez erdialdeko euskaran aurkituko ez genituzkeenak (2 puntu):

a.

b.

c.

d.

3. Berridatz ezazu testua euskara batuan (6 puntu):

Bigarren Hizkuntza II: Euskara
7. GAIA: Euskara nafar-lapurtarra

Izen-abizenak:

Data: